

## 6. LANGILEENDAKO BERMEAK

*“Gaurko mankomunitateetako eta udalez gaindiko elkartzeetako langile guztiak eskualdetan sartuko dira, subrogazioaren bidez, gaur duten funtzionario-baldintzekin edo kontratu-baldintzekin”.*

---

### **2017ko proposamena**

Honetan honako hau bermatzen da: *“Gaurko mankomunitateetako eta udalez gaindiko elkartzeetako langile guztiak eskualdetan sartuko dira, subrogazioaren bidez, gaur duten funtzionario-baldintzekin edo kontratu-baldintzekin.*

*Elkarte publikoak mantendu egingo dira, eta dagokion zerbitzua jasoko duen eskualdearen menpekoak izanen dira.*

### **2012ko Foru Lege Proiektua**

2012ko urrian tramitatu zen proiektuaren asmoa zen inposatutako Interes Orokorreko 6 Mankomunitateetako langileak hartzeko garaian, *“plantiletako langile kopurua doitzea”.*

Foru Lege proiektu horrek sortu nahi zituen administrazio zerbitzuetako elkartze berrien kasuan, lehenagoko elkartzeen kontratupeko lan finkoak sartuko zirela bermatzen zen, baina ez gainerako langile guztiak.